

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa, itzultzaile bat behar duen pertsona ororentzako zuzenduta dago, hori kontutan izanik masen merkatu batera zuzentzen gara. Hala eta guztiz ere, uste dugu ezaugarri zehatz batzuk dituzten bezeroak izango ditugula. Gehien bat, beraien enpresaren jarduera herrialde ezberdinetan garatzen duten enpresak eta turismoarekin zer ikusia duten enpresak izango dira interes gehien izango dutenak gure aplikazioa erabiltzeko, gure produktua beraien nahietara oso ondo moldatzen delako.

Bezeroen segmentua zein den zehazteko, ingurunearen azterketa bat egin dugu, gure enpresarentzako AMIA matrize bat sortuz. Hauek dira ikerketa horretatik atera ditugun aldagai ezberdinak:

- Ingurune makroekonomikoaren ikuspegitik, teknologia berriak eragina izan ahal dute gure enpresan, edota ekonomian gertatzen ari diren aldaketa desberdinak (inflazioa). Ingurune mikroekonomikoaren ikuspegitik, lehiakide berriak edota merkatuan dagoen eskaera jaistek ere eragin ahal digute gure enpresan. Guzti hau ez litzateke oso positiboa izango gure enpresarentzako eta konponbide ezberdinak bilatzen saiatuko gara.
- Barne ingurunean eragin ahal dizkiguten faktoreak, langile falta edo finantzatzeko baliabide falta izan daitezke. Horretaz gain, lehiakide zuzenak guk eskaintzen dugun zerbitzu berdina eskaintzen dituzten enpresak eta zeharkakoak google traduktorea edo interneteko beste traduktore batzuk kontutan izan beharko ditugu hauei aurrea hartu al izateko.

Hala eta guztiz ere, gure enpresak indarguneak dituela ere antzeman dugu, besteak beste; gure enpresaren indargune nagusia berritzailea izango dela da. Aitzindaria izango da itzultzaileen munduan eta horrek atentzioa deituko du munduan zehar.

Aukerak ere bilatu ditugu eta hauek enpresa aurrera eramaten lagunduko digute, jendeak gaur egun gero eta gehiago bidaiatzen du plazerra edo negozioak direla arrazoi eta globalizazioari esker, itzultzaileen beharra areagotu da, munduan existitzen diren hizkuntza guztiak jakitea zaila delako. Beraz, gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen badituzte, beraien beharrak hizkuntza aldetik asetuta egongo dira.

Hasiera batean, gure enpresa Bilbon kokatuko dugu, horrela bezeroak erakartzeko erraztasuna emango digunhiri handi bat delako. Gutxinaka enpresa zabaltzen joango da, baina hasiera batean, Bilbo eta bere inguruneke herriak izango dira bezeroak lortzeko errazena. Hau da gure bezeroen estimazio bat, herri eta generoen sailkapena eginda.

